

1899

Euskal-itz jostaldien Batzarrea**(Euskal-festen XVIII garren urtea)****ANTIGUA-KO ELEIZACHOAREN KONDAIRA****Berrogei ta amar pezetako aldeera eta bitezarra Zumarraga-n irabazitako moldaera****(BITORIKO IKASLEKU EDO SEMINARIO-KO ERRETORE
ON JUAN CENARRUZABEITIA-RI DONKITUA)***Beatam me dicent omnes generationes.*

Zumarraga-ko uritik gora guazela, Beloki deritzaion mendiaren alboan, alchatzen da Eleizacho bat.

Jendiak Antiguaren izenarekiñ ezagutzen du eta iñolaz onela deituko zaio zergatik izandu zan aurreko denporetan Zumarraga-ko erriaren premileiza.

Dago Eleizacho au toki alaietan, arbolaz inguraturik, zeñak ematen duten uda denporan kerizpe edo itzalpe gozoa.¹ Ez dauka Eleizacho onek balio aundiko gauzarik, ez bere ekitan ezta ere gañeronzeko gauzetan. Elizari ezarrita dago seroria-ren bizitegia, lenago apaiz-echea izandakoa.

Eliz inguruan ez daude baserri eche batzuek besterik nekazaritza onekoak batez ere Gurruchaga deitzen dutena.

(1) Zumarraga-ko zuzelekuan arkitu det paper bat nun esaten duan 1383-garren urtean agindu zutela ez ebakitzeko Antigua inguruko arbolak, gelditu zeditzen itzalpea egiteko.

II

Eztakit noiztik ekarriko duan Eleizacho onek bere lenengo izate eta jatorria, zergatik gai onetan illuntasun aundia arkitzen degun; alaz ere dudarik ez dago aspaldikoa dala, bada 14-garren eunkidan Zumarraga-ko uria Billarrealekiñ bildu zan garaian, kondairak agertzen dutenez, Antigua zan bere premileiza. Bakar bakarrik ziur dakiguna da, apaiz bakarra zegoala denpora onetan eta iru edo lau nekazaritza eche eleiza inguruan.

Laister bere biztanleak eskatu zuten beste eleiza bat gerturasegoan eta arrazoiarekiñ zergatik edozeiñ estuasunetarako bide luzea zeukaten Eitzagatik (echadi au zan kalea) Antiguaraño.

Ez al zuan jakiñ eleizacho onen zuzejaun On Felipe Lazkano-koak jendearen eskaera, erantzi nai izan zuan eta ipiñirik auzia eskabide onen kontra eliz-juezak (uztaillaren 29-an 1573-ko urtean) erabaki zuten erriaren alde, aditzera emanaz Iruña-ko apezpikuari egin zedilla erriak eskatzen zuana, zuzejaunaren arrandea gelditzen zala zutirik. E torririk On Antonio Manrike eta Balenzia (au da apezpikuaren izena) Zumarragara urriaren 14-an 1576-ko urtean, siñalatu zuan lekua eleiza berria jasotzeko. Ontarako, berak gauba igaro zuan echera eraman erazi zuan Sakramentu Santua eta izendatu zuan eche ura eleiza lekutzat.

Nola gero ta gero erria geitzen zijoan, eskatu zuten apaiz jaun geiago eliz serbizioarako. Erregeak biraldu zuan On Diego de Yanguas Zumarragara ikusi zezan premirik zegoan eta ezaguturik beren arrazoia, izendatu zituzten apaiz buru bat eta iru benefiziadu zeñak bertako semeak izan biarko zuten.

Gai onetan izan zuan erriak eleiz-zuzejaunarekiñ auzia zergatik onek izendatu zuan apaiz jaun bat erriko semea etzana eta arrazoia eman zitzaion erriari.

Arrezkero daukate amande au Balmediano-ko Markesaren familiak, zergatik diraden Lazkano-ren jatorrikoak.

Nondik daukaten arrande au eztakigu gauza garbirik; izan liteke idukitzea erregeari mesederen bat egin ziotelako.

Antigua-ko Eleizachoren ordean jaso dan Eleiza da ederra eta galanta. Ikusi degun bezela 17-garren eunkidan asierau bukatu zuten eta dorre berria 1713-ko urtean.

III

Antigua-ko Ama Birjiñaganako jaiera dago chit zabaldua eta bai Zumarraga-ko, bai beste inguruetakoko jendeak etortzen dirade maiz bere laguntasunaren billa. Beraren bitartez egindako mirariak ez badirade Lourdes-ko eta Aita San Antonio Urkiolakoaren beziñ otsanditsuak, ez dirade orregatik balio guchigokoak.

Urte guztian barruan ikusten dirade gurasoak bere seme alabak besoetan dituztela igotzen mendi gallur artara, Ama Birjiñaren laguntasunaren billa, batez ere aurrak askatu ditezen izketan. Orretarako iru ostiraletan juaten dirade eta iristen dute zeruko laguntza.

Eziñ genezake jarri emen mirari siñalaturik, baiña galdeztzen badegu inguruetakoko jendeari, denak ao-batekiñ aitortuko dute zenbait eta zenbait mirari egiñ dituan Antigua-ko Ama Birjiñak.

IV

Urteoro uzta illaren bian egiten da erromeria eleizacho onetara. Bezpera arratsaldetik, juaten dirade erriko gizonak eta siñalazten dituzte jan lekuak eta gañerakoak.

Urrengo egunean goizen goizetik esaten da meza, baserri inguruetakoko jendearentzat ta zortzirak aldean irteten da prozesioa premileizatik, danboliñ soñu eta dantzariakiñ.

Gora allegatutzian esaten da beste meza bat eta azkenik meza nagusia, musika oso ederrarekiñ.

Dantzariak sartzan dirade eleizachoen buruan eta Ama Birjiñaren oñetan dantzatzen dute ezpata-dantza. Eztakigu nondik datorren oitura au. Kondairak bakarrik esaten dute Zumarratarrak gisa onetan eskerrak ematen zizkatela Ama Birjiñari guda-egintza ondorean, baiña gauza au eztago ondo progaturik.

Dago erromeri au chit zabaldua eta inguru guzietako jendeak etortzen dirade egun orretan, batzuk promesa otsean eta beste batzuk egun on bat pasatzeagatik.

V

¡Antigua-ko Birjiña maitea! Or zaude mendi gañ batean ezkutaturik, alde guzietan mesedeak zabalduaz. Etzaitez aztu zure erriko semeetaz eta oietzaz oroitutzian biurtu itzazu nigan ere zure begi errukizkoak.

IGNAZIO BELAUSTEGI-KOAK.

Billarreal Urrechua-koan.

